

Eguerdi on, eta ezer baino lehen, eskerrik asko ekitaldi berezi eta garrantzitsu honetara bertaratzegatik. Hunkigarria da, zinez, gaur bizitzen ari garena.

Bi urte baino gehiago pasatu dira 36ko gerrak Usurbilen eragin zuena ikertu, ezagutzera eman eta balioan jartzeko proiektua abiatu genuenetik, eta, nork esango orduan, proiektu hau hala gorpuztu eta loratuko zenik.

Proiektu honek fase eta fase bakoitzari lotutako zeregin ezberdinak ditu. Parte-hartze fasea ireki eta proiektua herrira zabaldu zenean, txalotzekoa izan da usurbildarren erantzuna. Lan horren ondorioz sortu da Usurbil 1936 Oroimen Historikoaren elkarte, eta askotan egin badugu ere, gaurkoan, berriz, eskertu nahi diegu modu publikoan egiten ari diren lana. Lan hori gabe, eta Usurbilgo Udalaren ezinbesteko laguntzarik gabe, gaur ez ginateke hemen bilduta izango.

Memoria historikoa ez da artxibo batean gordetzen diren paperak bakarrik, edo museo batean gorde daitezkeen harriak. Memoriak, ordea, kolektiboa izan behar du, herritarrek osatutakoa. Bizia. Testigantzez josia. Jakin badakigu historia beti idazten duela irabazten duenak eta urte askotan zehar herri honetan gertatutako gauza asko kontatu izan direla ikuspuntu horretatik. Hori ere izango da memoria historikoaren parte; baina parte bat bakarrik, eta, gainera, kasu askotan gezurrez betetakoa.

Horregatik, ez da aski memoria aldarrikatzea. Memoria landu behar da. Egian oinarritutako memoria behar dugu. Memoria eta ahanztura antonimoak dira, baina ahanzturaren antonimorik borobilena ez da memoria, egia baizik. Eta egia zabaltzen dugun aldiro, ahanzturari gerra irabazten ari gatzaizkio.

Eduardo Galeanok esana da: "Negar las raices, los motivos, las causas es una forma de usar la desmemoria para consolidar la impunidad, para convertir las infamias en hazañas". Eta esana du ere "que la memoria viva no nació para ancla. Quiere ser puerto de partida, no de llegada. Y que la memoria sea mucho mas que una herramienta fundamental para avanzar en el camino".

Eta hain justu, helburu horrekin ari gara proiektu hau lantzen Usurbilen. Gerra ez baita fenomeno meteorologiko bat. Gerrek erro eta arrazoi politikoak (eta ekonomikoak) dituzte, hemen, Euskal Herrian, Ukrainian, Palestinan, Saharan, Sirian edo munduko edozein tokitan.

Gaur bete dira 86 urte tropa faxistak gure herrira sartu zirenetik. Gure iruditeria historiko eta kolektiboan Gernika, Durango, Intxorta, Bilbo... datozkigu tropa faxisten erasoaldi basatiez aritzean, baina gutxi dakigu gure herrian, Usurbilen, egun horietan izan ziren gerra fronteez, borrokez, gudariez eta faxistak Usurbil hartu ondorengo egoeraz, fusilatzeaz, errepresioaz, horrek eragindako ondorioez, sufrimenduaz, eta abar luze bat.

Hain justu, gaur, egun haietan basakeriaren toki izan zen tokian bertan bildu gara. Jakin badakigu, Donostia, Usurbil eta Lasarteko jende andana erail eta lurperatu zituztela hemen. Fusilatze gune bat izan zela dioten testigantza ugari dago. Lekukotasun horiei esker dakigu Jose Heredero usurbildarra eta Juan Antonio Irulegi andoaindarra hemen bertan fusilatu zituztela, beste asko bezala. Doakie gure besarkadarik goxoena haien senideei!

Horregatik, gaurkoan aipamen berezia egin nahi diegu gerraren basakeria guztien testigu izan eta izua barruraino izanagatik ere, sistema frankistari eta inposatutako bazterketari

eta ahanzturari aurre eginez, ikusitakoa kontatzeko ausardia izan duten guztiak. Lekukotasun haiengatik ez balitz, gorpu asko bide bazter eta kunetetan jarraituko zuketena. Oraindik, badira asko. Tamalez. Haiei esker, haien adore eta ekarpenari esker, gai izan gara duintasuna itzuli, memoria berreskuratu eta egia zabaltzeko. Eta basakeriaren eta gerraren leku izan diren tokiak oroimen leku bihurtzeko.

Halaxe egin dugu azken urtean Aginagako hilerrian, Zumaiako Meagasen, Udarregi Ikastolan, eta, gaur, Hirubiden. Gure eguneroko joan-etorritarako den toki honek badu hemendik aurrera, beraz, esanahi berezia: gure Gernika da. Toki mingarri hau, askatasun demokratikoen defentsarako, bake eta bizikidetzaren balioak transmititzeko eta oroitzapenerako gune izatea nahiko genuke. Ahanzturaren oroimenerako leku. Memoriarako espazio. Memoria kontzientzia delako. Memoriarik gabe, galduta geundekeelako. Eta berriz errepikatzeko bermerik ez geneukalako izango. Horregatik, gerra hotsak hain gertu ditugun honetan, ez dugu dudarik demokrazia eta askatasuna eraikitzen dituela memoriak, eta, horrenbestez, memoria ez dela bakearen etsaia, aliatua baizik. Bihur dezagun memoria, beraz, gizarte kohesiorako elementu, kolektibitate berri baterako zutarri.

Paco Etxeberriak dio biktimek memoriaren eskubidea badutela, eta guk, gizarteak, memoriaren obligazioa dugula. Ez ahazteko eta duintasuna itzultzeko betebeharra dugula. "Norbaitek oroituko ditu etorkizunean, ahanzturaren zingira honetan ito dituztenak". Halaxe dio Berri Txarrak taldearen abestiak.

Oroituko ditugu, bai, gaurko ekitaldia horren lekuko.

Usurbilgo EH Bildu, EAJ eta PSEko udal taldeen izenean.